

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak 150.000 euro banatuko ditu babes zibileko boluntarioak dituzten 9 erakunderen artean

*Udalak, toki elkarteak eta Exekutiboarekiko lankidetzak-hitzarmenak sinatuak dituzten bestelako erakundeak dira laguntza hauen onuradunak*

Astelehena, 2018.eko irailak 3

Nafarroako Gobernuak 150.000 euro banatuko ditu babes zibileko boluntarioak dituzten 9 erakunderen artean, 2018an ordaindu beharreko gastu korronteak eta inbertsioak estaltzen laguntzeko. Zehazkiago esanda, udalak, elkarteak eta foru Exekutiboarekin gai hauei buruzko lankidetzak-hitzarmenak sinatuak dituzten bestelako erakundeak izanen dira laguntza hauen onuradunak.

Halaxe jaso da, Nafarroako Aldizkari Ofizialak (NAO) gaur, astelehenez, irailak 3, plazaratu dituen Barneko zuzendari nagusiaren bi ebazpenetan.

Hartara, 90.000 euro banatuko dira guztira, babes zibileko boluntarioak dituzten [4 udal eta toki elkarteren](#) artean. Hauexek dira onuradunak: Cintruenigoko Udala (15.754 euro), Milagroko Udala (16.155 euro), Tuterako Udala (37.429 euro) eta Sartagudako Babes Zibileko Boluntarioen Elkarte (20.660 euro).

Bestetik, 60.097 euro banatuko dira kualifikazio eta jarduera espezifikoa duten [5 boluntario erakunderen](#) artean. Hauexek dira: Nafarroako Psikologoaren Elkargo Ofiziala (3.010 euro), EBYS Nafarroa Elkarte (9.668 euro), Nafarroa Espeleologia Federazioa - Espeleologuntzako Taldea (9.573 euro), Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioa (8.990 euro) eta Nafarroako Salabamenduko Txakurren Taldea (28.855 euro).